



Ana Ezeiza Agirre

Ana Ezeiza Agirrek Arkitekturako ikasketak amaitu baino lehen (1989-92) Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Zuzendaritza Sailean lan egin zuen, ikasle gisa; horrela, lan-munduarekin izan zuen lehen harremana hirigintzaren bidez izan zen. Karrera amaitu ondoren, 1992an, bere estudioa ireki zuen, ar21 arkitektura / hirigintza, Roberto Gartzia Azpirirekin batera. Bertan, arkitektura-proiektu ugari garatu zituzten eta Gipuzkoako zenbait udalerri txikitan hirigintzako aholkularitza lanak egin zituzten: Mendaro, Ataun, Lazkao, Lezo eta Zerain.

Halaber, 1992an, EHUko Arkitektura Eskolan Hirigintzako ohorezko irakasle aritu zen. Hamarkada horretan bertan, Donostiako Plan Orokorren eta Eibarko Plan Orokorren Bulegoan lan egin zuen. Hurrengo urteetan, eta gaur egun arte, bezero pribatuentzat egindako lanez gain, udalerri txikien plangintza-lan ugari egin ditu. Gainera, 2007tik Zeraingo Udalaren aholkularia da.

Ya antes de finalizar los estudios (1989-92) de arquitectura, como estudiante, Ana Ezeiza Agirre trabajó en el Departamento de Dirección Territorial de la Diputación Foral de Gipuzkoa; de esta manera, su primer contacto con el mundo laboral fue a través del urbanismo. Una vez finalizada la carrera, en 1992, abrió su propio estudio, ar21 arkitektura / hirigintza, junto a Roberto Gartzia Azpiri donde desarrollaron numerosos proyectos arquitectónicos y además de realizar labores de asesoramiento urbanístico de varios municipios pequeños de Gipuzkoa: Mendaro, Ataun, Lazkao, Lezo y Zerain.

Asimismo, realizó labores docentes como profesora honoraria de Urbanismo en la Escuela de Arquitectura de la UPV- EHU en 1992. En esta misma década, trabajó en la Oficina del Plan General de Donostia-San Sebastián y el del Plan General de Eibar. En los años posteriores y hasta la actualidad, además de mantener la actividad de su estudio con trabajos para clientes privados, ha realizado numerosos trabajos de planeamiento de municipios pequeños. Además, desde 2007 es asesora del ayuntamiento de Zerain.